

Merkatuaren segmentazioa

Hainbat segmentazio mota daude. Geografikoari dagokionez, penintsulan eta Frantzian salduko dugu batez ere. Hala ere, munduan zehar zabalik egongo da webgunea. Baina penintsula eta Frantziatik kanpo erosi nahi badute, bidaltze kostuak ordaindu behar dituzte. Frantzia eta penintsulan ere ordaindu beharko dituzte baina diru kantitate batetik aurrera ez, hau da, produktuen prezioek diru kopuru bat gaitzen badu ez dute ordaindu beharko.

Merkatu segmentazio demografikoan hainbat talde baztertu ditugu. Oso gazteak direnak eta adin nagusiko batzuk, horietako zaharrenak. Gazteek ez daukatelako gure produktuak erosteko dirurik, eta adin nagusikoek ez dakitelako nola erosi produktuak, gehienek ez dakitelako Interneta erabiltzen.

Gure produktua saltzeko, bezeroak ezagutza minimo bat eduki behar du gaiaren inguruan, ezin dugu inor ere ez konbentzitu gure produktua erosteaz zertarako balio duen ez badaki, edo zergatik den garestiagoa ez badaki.

Gure bezeroen ekonomia maila erdi maila edo erdi-goia izango da, dirua eduki behar dute erosteko. Gure produktua azken finean, “txollo” bat izango da, ekologikoa delako eta berez beharrezkoa ez delako.

Hala ere, gure produktua, nagusiki, ekologista den jendearentzat dago zuzenduta. Ekologista ez bada edo gutxiago kutsatu nahi ez badu, ez du gure produktua erosiko.